

NORAEZEAN

Marta Alberdi Urteaga

Pertsonaiak:

Aita: Miguel

Ama: Lidia

Alaba gaztea: Laia

Alaba zaharra: Miren

Liburu dendako buruzagia: Martin

Buruzagiaren semea: Ion

Garbitzailea: Celia

LAIA

Laia naiz eta 19 urte ditut, azkeneko hilabete hauetan nere bizitza noraezean ibili da, baina orain... orain azken unera iritsi da. Goibel eta beldurtuta sentitzen naiz ez dakidalako zer aurkituko dudan beste aldean...

Aita, ama, barkatu ez naizelako zuek espero zenuten alaba izan...

Miren, ez haserretu nirekin koldar bat izan naizelako.

Egun batzuk lehenago

LIDIA

Bi alaba dauzkat: Miren eta Laia. Egunak joan ahala nire lana ama bezala zailagoa egiten zait, dena gaizki egiten dudala sentitzen dut, gauzak gehiegi aldatzen ari dira, oso nahastuta nago. Askotan, ezin dut nire alaben jarrera ulertu, Miguel oso gogorra ari da izaten beraiekin; ez du nahi ulertu bere pentsamendu atzerakoia aldatu beharra duela familia elkartuta mantendu nahi badu.

MIREN

Atzo amari deitu nion, galdetzeko ea noiz joan nintekeen bere etxera, berri garrantzitsu bat eman behar dudalako.

– Berri garrantzitsu bat emateko? –esan zidan, haserre– hori esan zenidan azken aldian larrialdietan amaitu nuen buruan zauri betekin eta sekulako atsekabearekin.

LIDIA

Mentalki oso ondo prestaturik egon behar dut. Mirenek edozer gauza esan diezaguke. Zerbait esan behar zigun azken aldian, berri on bat eta berri txar bat zuela esan zigun: berri ona bikotea zuela zen, eta berri txarra, bikotea zuela.

– Baina nola uler dezaket hori? –galdetu nion

– Bai ama, niretzat berri ona bikotea daukadala da, eta, zuretzat berri txarra, bikotea daukadala.

– Baina nola izango da txarra zuk bikotea edukitzea, Miren? A zer txorakeri esaten dituzun! Emaidazu besarkada handi bat, 25 urterekin bazenuen garaia...

– Amaaaaaa –moztu zidan Mirenek– Elene Zubia da.

Blaust erori nintzen eta mahaiaren ertzarekin jotzeko zorte txarra izan nuen.

LAIA

Urte hau niretzat oso gogorra izaten ari da. Hasteko, Pellok, nire mutil-laguna izandakoak azken bi urteetan, utzi egin nau. Egia esan, susmatzen nuen zerbait arraroa, baina esan zidanean ez zuela argi ikusten beri orientazio sexuala... hori bai ez nuela espero. Ez dut gaizki ikusten bere orientazioarena, baina, ni oso maiteminduta nengoen berarekin. Kolpe gogorra izan zen.

Bestalde, Mirenek etxetik alde egin zuen gurasoek ez zutelako onartzen bera lesbiana izatea. Beti oso elkartuta egon gara eta orain oso bakarrik sentitzen naiz. Zer axola dio Miren neska batekin egoteak?

Ez diet nire gurasoei inoiz ere barkatuko beraien pentsamendu atzeratuak nola hautsi duen gure familia.

MIGUEL

Gure familiak porrot egin du. Lidia, nire emaztea, beti urduri dago. Mirenek etxetik alde egin zuenetik, Laia goibel eta balduta dabil, bere lekua aurkitu ezinik; elkarrekin sei urteko aldea izan arren, lagun minak izan dira beti. Nola egin digu Mirenek hau? Beste neska batekin maitemindu? Hori ez da guk eman diogun heziketa tradizionala. Non geratu dira gure familiaren baloreak? Eskerrak nire gurasoak ez dauden bizirik hau ikusteko, beraiantzat hau bekatu onartezina izango litzateke.

LAIA

Gaur gauean irten egingo naiz eta tekila txupitoz goraino jarriko naiz. Irteten naizen bakoitzean egiten dut eta momentu hauetan ilusionatzen nauen gauza bakarra da. Beno, hori eta nire Literatura ikasketak, eta baita liburu dendan egingo ditudan praktikak. Irrikitari nago hasteko!!

MARTIN

Bihar, praktiketako neska berria dator liburu dendara, Laia. Bere gurasoak ezagutzen ditut, jende jatorra eta langilea dira.

Baliteke Ion, nire semea, Laiaz maitemintzea, badu ordua neska zintzo batekin hasteko. Hau aukera on bat izan daiteke.

Badakit Ion ez dela oso leiala izan praktiketan ibili diren neskekin, baina, agian, oraingo honetan ezberdina izango da Laiarekin.

ION

Nire aitak esan dit bihar praktikatako neska berria datorrela, Laia. Ezagutzen dut. Beti erakarri izan nau sexualki, baina hurbildu izan naizen bakoitzean kalabazak bakarrik jaso ditut. Oraingo honetan ezingo du ihes egin, praktiketan egon diren beste neska guztiak bezala, nirea izango da. Nire aitaren liburu dendan lan egiteak prezio bat du.

LIDIA

Badakit Laiak gehiegi edaten duela irteten den bakoitzean, baina ezin zaio ezertxo ere esan. Edateak bihozmina ez diola desagerraraziko esaten saiatzen naizen bakoitzean, oihuka amaitzen dugu. Mirenek etxetik alde egitearen errua niri leporatzen dit, baina, nola nahi du nik nire alabaren sexu berdineko bikotea onartzea munduko gauzarik normalena izango balitz bezala? Ni ez naute hezi horrelako gauzak normaltzat hartzeko. Baina, bestalde, konturatzen naiz ez badut nire pentsatzeko era aldatzen, bi alabak galduko ditudala.

MIREN

Ostirala iristeko irrikitan nago. Badakit nire gurasoek ez dutela ulertuko esan behar diedana, baina Laiarentzat berri pozgarri bat izango da. Duela urte bat alde egin nuen bezala alde egin eta gero, izeba izango dela jakiteak pozez beteko du. Beti gustatu izan zaizkio umeak.

LAIA

Miren ikusi dut amatasun klinikatik irteten, aho bete hortz geratu naiz, berak ez nau ikusi. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer gertatuko den nire gurasoek jakiten dutenean, nik uste dudana egia baldin bada... Gauza bat da bikote neska edukitzea, baina, beste bat, berarekin familia bat osatzeko asmoa izatea. Niretzako poztasun handia izango litzateke izeba izatea, baina, nire gurasoek ez lukete inoiz onartuko bi amarekin osatutako familia bat.

MIGUEL

Laiari ultimatum bat eman diot: irteten den bakoitzean mozkortuta etortzeari ez badio uzten, etxetik botako dut. Alaba bat lesbiana irten zait eta bestea mozkortia? Zer egin dut gaizki nire bi alaben heziketan?

LAIA

Uste nuen praktika hauek interesgarriagoak izango zirela. Nire lana, saldu ez diren liburuak gordetzen datza, eta Ion ergelari nire ipurdia ukitzen uzten. Badakit salatu egin beharko nukeela, eraso sexista bat bezala, baino hori egiten badut praktikarik gabe geratuko naiz.

ION

Laia oheratzea uste nuena baino zailagoa ari zait egiten. Nola edo ala, beti ihes egitea lortzen du, baina gaur harrapatuko dut, gaur ez dit ihes egingo.

LAIA

Nire gurasoekin nazkatuta nago, nire praktikekin ere bai, Ion ergelarekin zer esanik ere ez... Eneeeee badator berriro... Zer nahiko du oraingo honetan? Berriro ipurdia ukitzen utzi behar al diot? A zer nazka ematen didan inguratzen den bakoitzean!

LIDIA

Zerbaitek esaten dit gauzak ez doazela ondo. Laia ez da goizeko 9etatik mugikorrera konektatu. Hori ez da normala, oso oso urduri nago, eta ideia txar bat eduki badu? Migueli deituko diot.

– Miguel, ba al duzu Laiaren berri?

– Lanean dago, ez?

– Ez da egun osoan konektatu mugikorrera –esan diot.

– Bai, eta?

– Ba hori Miguel, ez da normala.

– Baita zera ere –dio Miguelek.

– Oso urduri nago, zerbait txarra gertatu dela pentsatzen hasi naiz. Bere buruaz beste egingo ote...

– Lidia! Zaude ixilik!

Ordu bete beranduago

LIDIA

Iu, iu, iu, iu, iu, iu, iu... behin eta berriz entzuten dut anbulantziaren sirena. Baina, zer ari da gertatzen? Ni nago anbulantziaren barruan... Orain gogoratzen dut gertatutakoa, ertzainak etorri dira etxera eta galdetu dute:

– Zu al zara Laia Odriaren Ama? BUMMMMM lurrera erori naiz.

MIGUEL

Ospitaletik deitu didate. Berehala noa. Laia gaixoa...

Hiru hilabete beranduago

LAIA

Celiarekin bazkaltzeko geratu naiz, bizia zor diot. Bera izan zen nire gorpua konorterik gabe aurkitu zuena lurrean. Ion ni bortxatzen saiatu ondoren liburuen apala nire gainera bota eta bertan utzi ninduelako. Celia, paperik gabeko garbitzaile bat, izan zen ni isilean gordetzen ari nintzena salatzeko ohorea eduki zuen pertsona. Ion baldintzapeko askatasunean dago. Ez zait bidezkoa iruditzen baina gauzak horrela dira.

Mirenek ama izan behar du. Oso pozik nago. Niri gertatutakoarenaren ondoren, nire gurasoek bere orientazio sexuala onartu dute eta sortu duen familia mota berria ere bai: familia bat bi amarekin. Badirudi gure familia garai berrietara egokitu dela behingoz.

Oraindik nire amarekin txunditurik nago, nola pentsatu zuen nire buruaz beste egin nuela? Egia da momentu txar bat pasatzen ari nintzela, baina, hori ez zitzaidan inoiz ere pasa burutik. Nik banakien gauzak hobera joango zirela.

Sei hilabete beranduago

LIDIA

Amona egin naute.

AMETS jaio da.